

h) EUSKARAREN ERABILKERARI BURUZKO OHAR BATEZ:

X. Kintana jaunak aditzera ematen du, Euskal Herriko parlamentariak Madrid-en agertu duten aburuz, gure hizkuntza, "lengua complicada" omen da. Hontaz, hil honen 24ko "Deia" kazetak agertu duenari Euskaltzaindiaren erantzuna eskatzen du, eta helduden astean Euskaltzaindiakoak parlamentariekin egingo duten bileran gure harridura agertzea eskatzen du.

i) IRAILEKO BILTZAR IDEKIA, BILBON, J. M. ZABALAREN OMENEZ:

Urrengo batzarra, Irailaren 24ean, Bilbon izango da Juan Mateo Zabala euskal idazle zenaren gorazarrez. Bilkura hau Bidebarrieta kaleko Udal Liburutegian izango da, hiru hitzaldi laburrez: A. Agustin Biain jaunak Juan Mateo Zabalaren bizitzaz; A. Lino Akesolo jaunak, Juan Mateo Zabala euskal idazle; eta A. Irigoyen jaunak, Bilbo eta euskara. Bukaeran, aurtengo euskal irakasle tituludunei agiriak banatzea.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkari orde
E. Knörr